



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA						Kodea: 014777		
ARLOA / IRAKASGAIA	MATEMATIKA						DATA	2018-2019	
MAILA	LH 5	LH 6							
1	ARLOAREN GUTXIENEN HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA								
<ul style="list-style-type: none"> - Eguneroko bizitzatik, ateratako problemak, bakarka zein taldeka, proposatzea eta ebaztea; horretarako, hainbat estrategia aukeratu eta erabiliko dira; ebazpidea arrazoitu, emaitzak interpretatu eta egoera berrietan aplikatu. - Ezaguera matematikoak erabiltzea eguneroko bizimoduko egoeren eta gertaeren mezuak eta informazioak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko. - Natura-inguruneko forma geometrikoak identifikatzea; errealitatea deskribatzeko, eta ezaguera geometrikoak aplikatzea mundu fisikoa ulertzeko eta aztertzeko eta harekin lotutako problemak ulertzeko eta aztertzeko. - Kalkuluak eta estimazioak segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzaren arabera prozedura erabiliz, eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko emaitzak sistematikoki berrikusiz. - Ikasleen hizkuntza naturalaren eta matematika-hizkuntzaren elementuak erabilia (zenbakiak, taulak, grafikoak, irudiak), arrazoitzea eta argudioak ematea, argi eta modu koherentean. - Informazio eta komunikazio teknologiak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) zuzen erabiltzea, kalkuluak egiteko, informazioa bilatzeko, tratatzeko eta baita matematika ikasten laguntzeko ere. - Matematikak eguneroko bizimoduan duen egitekoa aintzakotzat hartzea, matematika erabiliz gozatzea eta matematikarekin diharduten moduak eta jarrerak balioestea. - Matematika gure kulturaren partetzat hartzea eta landutako matematika-gaitasunak gizartean gertatzen direnak aztertzeko eta balioesteko aplikatzea. 									



2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA LH 5			
	1ª evaluación		2ª evaluación	
	1ª evaluación		2ª evaluación	
	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbaki sistema hamartarra. Zenbaki ordinalak, erromatar zenbakiak eta zenbaki hamartarrak. Zenbakiak konparatzea eta ordenatzea. - Batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa. Propietateak. Eragiketa konbinatuak. - Biderketaren banatze propietatea. - Zatiketa zehatza eta zehaztugabea. - Zatiketa zehatzaren funtsezko propietatea. - Zenbaki baten deskonposizio polinomikoa. - Buruzko kalkulua. - Buruketak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Batuketak eta kenketak hamartarrekin. - Zenbaki hamartarra bider zenbaki arrunta. - Zenbaki hamartarra zati zenbaki arrunta. - Zatiketa hamartarra eta zenbaki hamartarra. - Zatiketa baliokideak. - Izendatzaile bereko zatikiak batzea eta kentzea. - Unitateak eta zatikiak batzea. - Luzerak, edukiera eta pisuak neurtzeko unitateak. - Adierazpen konplexuak eta ez-konplexuak. - Buruzko kalkulua. - Buruketak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Orduak, minutuak eta segundoak. Adierazpen konplexuak eta ez konplexuak. - Angeluak sailkatzea eta neurtzea. - Angeluaren erdikaria. - Zuzenkiaren erdibitzailea. Simetriak eta translazioak. - Sistema metriko hamartarreko azalera-unitateak. Adierazpen konplexuak eta ez konplexuak. - Eragiketak azalera-unitateekin. - Mapak. Planoak. - Puntu baten koordinatuak. Espazioan orientatzea. - Buruzko kalkulua. - Buruketak. 	
2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA LH 6			
	1ª evaluación		2ª evaluación	
	1ª evaluación		2ª evaluación	
	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbaki sistema hamartarra, erromatar zenbakiak, zenbaki ordinalak eta zenbaki osoak. - Zenbakiak irakurri, idatzi eta konparatu. - Biderketa eta zatiketa. Propietateak. Eragiketa konbinatuak. - Erro karratua. - Berrekizuna 10 duten berreturak. Zenbakien deskonposizio polinomikoa. - Multiplo komunetako txikiena. Zatitzaile komunetako handiena. - Zatikarritasun irizpideak. - Buruzko kalkulua. - Buruketak 	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbaki hamartarren ordenak. - Lau eragiketak zenbaki hamartarrekin. Zatiketa baliokideak. - Eragiketak zatikiekin. - Magnitude zuzenki proportzionalak. - Zatikien konparaketa. - Ehunekoa Kantitate baten ehunekoa zenbat den kalkulatzeko. - Luzera, azalera, bolumena eta edukiera neurtzeko unitateak. - Adierazpen konplexuak eta ez-konplexuak. - Buruzko kalkulua. - Buruketak 	<ul style="list-style-type: none"> - Eragiketak denbora kantitateekin. Adierazpen konplexuak eta ez-konplexuak. - Eragiketak angeluen neurriekin. - Paralelogramoen, triangeluen eta poligono erregularren perimetroa eta azalera. Irudi lauen azalera deskonposizioz. - Prismaren eta piramidearen bolumena. - Zilindroaren eta konoaren bolumena. - Moda, mediana eta batez bestekoa. - Datuetan oinarritutako probabilitatea. - Buruzko kalkulua. - Buruketak 	



EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Zenbait zenbaki mota (arruntak, zatikiak eta hamartarrak) irakurtzea, idaztea eta ordenatzea zenbakizko testu akademikoetan eta eguneroko bizitzakoetan, arrazoibide egokiak erabilia eta zifra guztien posizio-balioa interpretatuta.
- Problemak ebaztean, zenbaki arruntekin eta hamartarrekin eragiketa eta zenbakizko kalkulu errazak zehatz eta gutxi gorabehera egitea, zenbait prozedura mental, algoritmoa eta kalkulagailua erabiliz.
- Zenbaki arruntak, hamartarrak eta zatikiak erabiltzea, eguneroko bizimoduan informazioa interpretatzeko eta trukatzeko; zenbaki horien baliokidetasuna erabiltzea, kalkulu errazak egiteko eta problemak ebazteko.
- Azalera-, pisu/masa-, edukiera- eta denbora-unitateak eta moneta- sistematik eratorritakoak zehatz adieraztea, eta, egoerak hala eskatzen duenean, unitateen arteko bihurketak egitea.
- Eguneroko bizitzako egoerak, mezuak eta gertaerak deskribatzea eta ulertzea; irudikapen espazialak interpretatzea eta osatzea (ibilbide baten krokisa, etheen planoak eta maketak), oinarrizko nozio geometrikoak (kokapena, lekualdatzea, paralelotasuna, perpendikularitasuna, eskala, simetria, perimetroa, azalera), eta koordinatu kartesiarrezko sistema erabilia.
- Irudi eta gorputz geometrikoak ikastea, haien oinarrizko elementuak deskribatzea, zenbait irizpideren arabera sailkatzea, eta irudi eta gorputz geometrikoak erreproduzitzea.
- Problemak ebazterakoan, inguru hurbilarekin zerikusia duen datu multzo bat adierazten duten taulak eta grafikoak osatzea, eta horiek irakurtzea eta interpretatzea.
- Problema errazak ebazteko arrazoizko emaitza zein izan daitekeen aurreikustea, eta matematika-prozedura egokienak bilatzea, ebazpen-prozesuari ekiteko. Estrategiak balioestea, eta datuak eta emaitza zehatzak bilatzen saiatzea. Problema ebazteko erabilitako prozesua modu ordenatu eta argian adieraztea, ahoz zein idatziz.
- Ikerketen eta matematika-problemen emaitzak bilatzeko interesa eta gogoia izatea, eta horiek txukun aurkeztea; eta ikasleak aintzat hartzea beharrezkoa dela hausnartzea, taldean lan egitea, azalpenak elkarri jakinaraztea eta gainerakoen planteamenduak eta iritziak errespetatzea.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

- Edukiak: %60
 - Edukiak %20
 - Eragiketak %20
 - Buruketak %20
- Prozedurak: %20
 - Irakasgaiarenganako jarrera.
 - Agendaren erabilera egokia.
 - Etxeko lanak ondo egitea eta ikastea.
 - Garbitasuna eta materialaren zaintza.
- Jarrera: %20
 - Egunerokoan parte hartzea eta besteak errespetatzea..
 - Talde lanetan, modu egokian elkarlan egitea.
 - Euskararen erabilera.